

Radio Maria

Urte berri honek garai berrien esperantza berrak berriak berriak badu ere, gustu garratz batekin hasi dugu. Anaiaren aitagarreba zendu zaigu, eta harekin mundu bat. Nafarra sortzez, eta Lapurdin bizi zena, beti umoretsu eta langileak baino langileago. Txikitzen euskara ukatua eta debekatua izan zitzaionez, erdaraz moldatzen zen errazago. Haurrak ikastolan inskribatu, eta, horrez gain, atea beti irekia zuten horietako bat. Euskal Herriari oso harro, eta gure lan egiteko eta eraikitze gaitasunaz are gehiago. Kamioi gidaria izan zen ofizioz, eta nekeari aurre egiteko trikimailu ezin hobea asmatu zuen. Bidean zela akidurak hartzen zuenean –lan ordu askoren ondoan gehienetan–, irratia pizten zuen. Eta Radio Maria sintonizaten zuen. Ez zen fedeagatik, edo irratia hartako pentsaerak partekatzen zituelako. Ez, guztiz aurkakoa. Entzutean, amorrua pizten zitzaion, eta iratzarrik mantentzen zen. Kilometroak jaten zituen. Bizi lezio



LAUHAZKA
Ximun Fuchs

horiek erein zituen nigan. Gure eraikuntza herrikoiaz harro egon eta etsaia entzun, adi egon. Larunbatean, milaka ginen kalean; eguzkiak argitan zioen bezala: bizirik gara. Motxila astuna da, batzuetan eramangaitza, baina gutxi dihardugu. Eta asko da. Zubiak mukuru plazaraino, jendeek makila eskuan, lepoan hartu eta segi aurrera. Ezagunak eta

ezegunak, betikoak eta sekula ausartu ez zirenak, auzokoak eta hangoak. Komunitate bat bere seme-alabak eskatzen. Kooperazio erraldoi bat. Alta, asteen zehar, Espainiako kongresuan entzun dira barbaridadeak, garai ilunetan bezala. Radio Maria legebiltzarrean.

Zaldi Urdina ikustera etorri zen preso ohi batek konfiatu zidan oso harro zegoela. Donostian ikusi zuen antzezlan eta Irufean berretsi zuen. Eta uros zegoen, pozaren ezinegorean. Obra gogorra da, bai, baina hainbeste euskaldun hurbiltzen ikustea, gaia gau argiz aipatzen, kaleak zeharkatzen beldurrik gabe, tabuak urratzen, zerbait da. Zonbizi betirik zegoen kalean bertan, euskal jendartera bizirik, eta existitzeko ausardia, horretan datza. Hemen eta orain. «Zenbat indartu garen...» zioen, ezin sinistuz. Garaiak ez dira errazak, mutu-

rreko galantak biltzen ditugu, baina Europa erdi-erdian, izokinek bezala, korrontearen kontra igeri egitea lortzen dugu. Izokinek bezala, ez dugu ahazten nondik gatozen, eta itsaso handitan

ibiltzen bagara ere, sortu gaituen herria ez dugu ahazten.

Horren esplikatzeko saiatu naiz antzoki handi bateko zuzendari bati. Ez da euskalduna, maite du gure herria, berriki hartu du bere funtzioa eta pozik. Giroa, festak, janari aparta, itsasoa, mendia... Bikain. Udazkenean Zaldi Urdina programatu zuen. Hitzordu bat hartu dut berekin, gure ondo-ko ikuskizuna aipatzeko. Ez du sustengatuko, ez baita sartzen bere programazioaren idazkera orokorrean. Ez zait gaizki iduritzen berez, baina eskatzen diot euskarazko zein ikuskizun ukango duen heldu den kurtsuon.

Dantza zerbait, musika ekitaldi bat, baina antzerkirik ez. Zero. Ez zela heinean euskal antzerkia. Ez diot galdetzen nola jakiten ahal zuen, tutik ez duenean ulertzen hizkuntzari. Ez diot eskatzen eren bat ikuskizun ikusi dituen euskaraz, zeren badakit bi ez dirrela izango. Ondorioztatzen dut euskaldunok kantatzen edo dantzatzen duguno onargarriak gara, baina mintzatzen ez. Alai ditzagun bazterrak, bazkari edo afari onak sukaldatzen

afari onak sukaldatzen, bazterrak eder mantendu... Bazterkeria eta diskriminazioa dela erraiten diodanean, ez du ulertzen. Gaitzitzen da doi bat (zeren bera irekia da, kulturaren jarduten baita). Lurralde oso bati ukatzen zaio berea den hizkuntza batean existitzea, oso sinbolikoa den leku batean, agora batean, demokrazia baten sinbolo batean. Atarian gelditzen gara. Erraiten dit ezetz, beti ongi etorriak gara, euskara entzuten dela korridoretan. Bai, baina identifikatzerak behartzen gaitu gurea ez den hizkuntza batean, pentsaera batean, eta emozioetan. Hau da, bere an-

tzokia gure izaera masiboki suntsitzeko tresna eraginkor bat da. Ez da bakarrik ezin dugula mintzatu, ukatuak gara, baizik eta bere aretoa pentsaera baten sukurtsal bat dela, eta onartzen gaitu belauniko, ikus dezagun zela-ko heina duen bere kulturak, zelako handitasuna gure txikitasunaren parean.

Hari beretik, goizean, irratian, Euskal Herriko politikari bat entzun dut. Espainiako gobernu berraren osaketa aipatzen zuen zeharka. Gure herriari dagokionez, beretzat erabakitze eskubidea marra gorri bat zela zioen. Zatiketa besterik ez zuela ekarriko.

Funtsean, zer zioen hitzen artean? Euskal herritarrek ez gara gai erabakitze. Atzeratu egiak gara, edo ez osoki amaituak. Ziminoak. Sinpatikoak e, baina tontoak. Gure etorkizuna ezin dugu erabaki edozein espainol, frantses edo ingelesek bezala. Erabakitzen ahal dugu frantses edo espainol izaeratik, eta esparru horren baitan bakarrik. Berak erraiten duen bezala, Espainia anitz bat eraikitze. Ez Euskal Herri anitz bat, hau marra gorri bat delako. «Hau ameskeria irreal bat da», zioen beste batek. Espainia edo Frantzia anitz bat irekia baita eta bateratzailea. Euskal Herri anitz bat ez, hau itxia da eta ez da heinean. Ez dakit zertarako, baina berriz pentsatu dut anaiaren aitagarrebari, eta Radio Maria irratitari. Esna nago, ez dut lo hartzeko asmorik.

berria gonbidapenak

Ikusi al dituzu Guggenheimeko erakusketa berriak?

Negu honetan ere, BERRIAlagunak
GUGGENHEIM BILBAO museora doan

2 gonbidapen BERRIari esker!



Hona hemen bilduma finkoaz gain erakusgai dauden erakusketen egutegia:

Guggenheim Bilbao bildumako maisulanak Erakusketa Iraunkorra	Jesse Jones Dar-dar martxoaren 1era arte	Kunsthalle Bremen bildumako maisulanak otsaiaren 16ra arte	Soto Laugarren dimentsioa otsaiaren 9ra arte	Olafur Eliasson Bizitza errealean otsaiaren 14tik aurrera
--	---	--	---	--

Aukeratu noiz datorkizun ondo **berria laguna** webgunean, eta gonbidapenak etxera bidaliko dizkizugu, **doan!**

Berria.eus/berrialaguna/zozetak/gonbidapenak

Oihara: BERRIAlagun bakoitzek bi sarrera eskuratu ahal izango ditu. Gogoan izan, abentilaz gozatzeko, kontua sortuta izan behar duzu BERRIAlagun gisa.

berria
mundua-euskarar-ema

Ondorioztatzen dut euskaldunok kantatzen eta dantzatzen duguno onargarriak gara, baina mintzatzen ez. Alai ditzagun bazterrak, bazkari edo afari onak sukaldatzen